



ESKOLAGUNE

Ekoetxea Urdaibai

Beharrezko
geralekua

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

ARLO/IKASGAIA: Natur zientziak, biologia eta geologia

ARLO/IKASGAI ERLAZIONATUAK: Kultura zientifikoa

Padurak, Urdaibain hoberen babestuta dagoen ekosistema, bere edertasuna eta garrantzia ezagutzera gonbidatzen gaitu.

San Kristobalgo paduratik 1,5 orduko ibilbidea gutxi gorabehera eta beste 1,5 orduko bisita, Ekoetxea Urdaibain non bertako espezieak ezagutuko ditugu, espezie inbaditzaileen inpaktua aztertuko dugu, eta inguruko bizimoduei eta erabilera jasangarriei buruzko hausnarketa egingo dugu. Espazio paregabe horiekiko errespetua pizten duen hezkuntza-esperientzia biziko dugu.

Nola eragiten dute espezie inbaditzaileek? Zer egin dezakegu? Zatoz aurkitzera!